

Preludioak Victor Hugo eta Argentinan bizi diren hernaniarrak omenduko ditu

■ Verdiren 'Ernani' Obertura eta 'Don't cry for me Argentina' interpretatuko dira ■ Aurtengo Preludioak ansorenatarrek bildutako zenbait kantu ere erreperatuko ditu ■ Ekainaren 15ean, 22:30etan, plazan.

OSTEGUNEAN aurkeztu zen Biterin San Joan Jailetako Preludioa edo Iragarpen kontzertua. Orain 200 urte jaio zen Victor Hugo, *Ernani* antzerki obra idatzi zuen idazle erromantizista frantziarra. Gero, Giuseppe Verdi kompositore haundiak *Ernani* opera idatzi zuen, Victor Hugoren obran inspiratuta. Preludioan *Ernani* Operako Obertura interpretatuko du Musika Bandak.

Joxan Goikotxea zuzendariak azaldu zuenez, urteurren hori kontuan izanda, *Ernani* Operako Obertura sartzea Hernani herriak Victor Hugori eskerrak emateko modu polita da.

Argentinako hernaniarrak Aurtengo Preludioak herritik kanpora dauden hernaniar guztiak gogoan izango ditu, eta batez ere, Argentinan bizi



Ezkerretik: Patxi Apezetxea, Joxan Goikoetxea, Mertxe Etxeberria eta Manuel Sagarna.

diren hernaniarrak eta haien ondorengoak. *Don't cry for me Argentina* kantua interpretatuko dute. Manuel Sagarna Bandako zuzendariak esan zuen garrantzitsua zela bai Verdiren *Ernani* eta *Don't cry for me Argentina* jotzea "Hernaniko jende asko dago Argentinan eta hemengo askok du han familia" azpimarratu zuen. Argentinako herna-

niarrek etxean jasoko dute Preludioko programa.

Ansorenatarrek

Aurtengo Preludioak ansorenatarrek bildutako zenbait perla ere eskainiko ditu: *Asteartitako bolera*, Inauteri goizetan jo eta jendea algarka jartzen omen zuena; eta *Belengo herrian*, Gabonetan jotzen zena.

Alkatearen eskerrak

Goikoetxearen esanetan, Preludioaren helburuetako bat da herriko musika, kantu eta dantza taldeak biltzea. 200 pertsona inguru pasako dira, eta 400 inguru Preludio Txikian. Mertxe Etxeberria alkateak Preludioak hartu duen arrakasta nabarmendu eta guztiak eskerrak eman zizkien. □

MENDIRIZ MENDI

Kanoi-jeistea eta umeentzako asteburu pasa, Pirineoetan

MENDIRIZ Mendik Pirineoetan Arroila-jeistea eta umeentzako asteburu pasa antolatu ditu ekainaren 8-9ko asteburuan joango dira Huescara, *Boca del Infierno* eta *Barranco de Estribellaser*. Heko haranean daude biak. Mendiriz Mendik adierazi duenez, 20 pertsonentzako dago tokia eta joateko federatuta egon behar du. Ekainaren 3an arroila-jeistea joan nahi duten guztiak detaileak esplikatzeko bilera egingo da lokalean, arratsaldeko 20:00etan. Izena emateko azken eguna, ekainak 6.

Panticosa eta Astun ingurura

Gaztetxoak Panticosa eta Astun ingurura joango dira asteburu pasa, ekainaren 15 eta 16an. Plana: larunbata Panticosako balneario inguruan pasa, han lo egin eta Portaletetik Astunera oinez, Midi d'Ossautik barrena. Paraje eta bide zoragarriak dira. Gaztetxoentzako da, helduak ere etorri litezke. Prezioak: gaztetxoek 20 euro; helduek: 33 euro federatuak eta 40 federatu gabeak. Prezio horretan sartzen dira autobusa, afaria, gaua, eta gosaria. Ekainaren 10a baino lehenago apuntatu behar da. □

ESKUBALOIA

Hernani eta Bera-Bera Gipuzkoako Kopa bila

EMAKUMEZKOEN Kopako azkeneko partidua jokatuko da gaur. Hernaniko taldea sailkapenean Bera-Bera taldearekin berdinduta dago, orain arteko partidua guztiak irabazita. Sailkapeneko berdinketa hori puskatzeko donostiarren aurka jokatuko du azkeneko partidua. Irabazten duena izango da Kopako txapel-dun. Hernani fuerte dabil, baina, Bera-Bera da Txapelketa irabazteko faboritoa. 19:00etan jokatuko da, Bidebietan. □



Semifinaletan ateratako argazki anpliatua eman zion Udalak taldeari. Ezkerrean Juantxo Rodriguez, Aristimuño zinegotziarekin.



Errugbi Elkarteak Joseba Apaolaza zenari eskaini dio Estatuko txapela

UDALAK harrera ofiziala egin zion dio Errugbi Elkarteari, bigarren urtez segidan Estatuko Txapel-dun gelditu direlako. Udaletxearen izene-

an Eli Igarritz Kirol zinegotziak zorionak eta eskerrak eman zizkien denei egindako lana eta lortutako tituloagatik. Ondoren, Juantxo Rodriguez

Errugbi Elkartearen lehendakariak jubentzen hazaina txalotu eta Joseba Apaolaza zenari eskaini zion Estatuko txapel-dunaren tituloa. Apaolaza

Errugbi Elkartearen oso sartuta ibilitako gizona izan zen. Ekipoko kapitana ere hitz egin zuen: "Eskarrik asko, eta hurrengo urte arte" bota zuen. □

ESKAINITZAK
kotxerako osagarriak
antena
esku libre fijoak
instalazio gabeko
esku libreak
soporteak

Telebista 390,06 € (64.900pta)

25", 2 x 5 watio, 2 eurokonektore, 7 orriko Teletextoa, Zomm bidezko 4:3tik 16:9rako pasoa, 100 programa, Gris Metalizatua.

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00

SANSONATEGI JATETXEA

Leku atsegina Hernanitik gertu

SANSONATEGI JATETXEA
Martindegi Auzoa
Tel: 943 33 15 72 - 55 32 60

Antziola-Motor
ZERBITZU OFIZIALA

Ford Fiesta
berriarekin
festatik festara.
Etorri eta ikusi


ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asatean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

Sagardotegi boladan, astez gutxiago eta asteburuetan gehiago ibili da jendea

■ Herriko jendea ere asteburuetan gehiago joaten da orain ■ Aurtengo sagardoarekin oso gustora daude sagardogileak, "sagar aukera handia izan baita inguruan".

TXOTX denboraldia bukatuta, aurtengo kanpainaren ingurukoak jakin nahian ibili gara. Sagardogileen hitzetan kanpaina nahiko ona izan da aurtengoa: jendez, iazkoaren antzekoa, eta sagardoa, ona.

Azken hamar bat urteetan gora dijoan joera nabarmendu da aurtun ere: jendea astez gutxiago ibiltzen da, bai sagardotegian, eta baita gero poteoan ere. Asteburuetan, berriz, gainezka izaten da, geroz eta gehiago. Zenbait sagardogilek aipatu dutena da Hernani eta inguruko jendea ere geroz eta gehiago asteburuetan joaten dela sagardotegira, astez joan beharrean.



Iparragirre sagardotegian sagardo botilak pila jartzen.

Orain, botilatik

Sagardogileak gustora daude aurtengo sagardoarekin. Iaz sagar asko izan zen bertan eta aukera handia izan omen dute. Batzuk esan digute sagardo lasaiagoak direla aurtengoak, iaz baino atzeraxeago etorri direnak. Botilatik edateko primerakoa izango da seguru asko.

Izan ere, sagardotegi bolada bukatu arren, lana ez da bukatu sagardotegietan: enbotelatu, botilak banatu... sagardorik gehiena inguruko soziedade, denda, taberna eta partikularretara banatzen dute, eta gutxi batzuk kanpora ere bai. Sagardogileek diote txotx gara-

ia motza dela, baina, berena urte osoko lana dela: "kanpaina bukatzean enbotelatu eta banaketan hasten gara. Konturazterako iraillean gaude, berriz sagardoa egiten noiz hasiko".

Tabernak lepo

Tabernariak esan digutenez, jende asko ibili da aurtun, aurreko urteetan bezalaxe. Sagardotegietako joera bera ikusi dute: asteburuak lepo eta astean zehar lasaiago. Aldaketa, eguerdian nabaritu dute: eguerdian jende gehiago ibili omen da aurreko urteetan baino, eta herrikoa gehienbat. Isti-

luak, berriz, asko ez, baina, batzuk bai. Eta horiek gutxitzen zaila dela diote horrelako jende pilaketak izanda behintzat.

Jende pilaketa gehien noizten dutenak *Kaxkoko* biztanleak izango dira seguruenik. Diotenez, garbitasunean-eta hobera egin du *Kaxkoak* aurtengo kanpaina, baina, badira zenbait gauza eraman ezinak: pixa portaletan, kristalak kalean... Gainera, kanpotarren izenean herriarrak omen dira horrela dabilzan asko. Borondatea ikusten omen dute gauzak hobetzeko, baina, zer hobetua ere dezente omen dago oraindik. □

Ur-ludoteka bihar igerilekuan

Umeentzako jolasak egingo dituzte bihar, igandea, kiroldegiko piszinaan. Goizeko 10:30etan hasiko da. Gaurkoa da ur ludotekako azkeneko eguna, kurtsoan.

Eskolarteko waterpolo gaur

Gipuzkoako eskolarteko txapelketako finalak jokatuko dira gaur kiroldegian 16:00etan. Infantiletan Langile eta Kadetetan Urumea, klasifikatuak daude.

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK-

FUTBOLA				ESKUBALOA	
Taldeak	Non	Noiz			
Gorengoak	Hernani-Ordizia	Zubipe	Bihar, 17:00	Gip. Kopa	Hernani-Bera Bera
Gazt. Ohor.	Aldapetarrak-Hernani	Matigox.	Gaur, 18:00		Eidebieta
Kadet. Ohor	Hernani-Antiguoko	Zubipe	29an, 19:15	PELOTA	
Kadet. 2.a	Hernani-Hondarriria	Zubipe	Gaur, 11:00	Kronika Txapelketa	
WATERPOLOA				Arano-Gorka / Alvarez-Aruti	Tiloseta
Euska. Kopa	HernaniA-Gasteiz	Gasteiz	Gaur, 13:00	Ariz-Mikel / Garmendia-Zabala	Tiloseta
Gipuk. Kopa	HernaniA-HernaniB	Kiroldegia	Bihar, 13:00	Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketa	
				Gaur 18:00etan Lizartzan	

Gipuzkoarako eskusiban **LAND ROVER** kontzesionario ofiziala.
EUROLAN 4 x 4 (VOLVO ondoan) - ☎ 943 33 10 06

Betiko lekuan, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3
Tel. 943 55 17 91

OKINDEGIA
ANTZIOLA

Denda berri bat zabaldu dugu: Ogia, pastelak, kafea, gozokiak, refrescoak,...

Ordenagailuak, jendeak erabiltzeko.

ANTZIOLA
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
KAFAA

MONTEBIDEO, 3

HITZ BITAN

✓ WATERPOLOA

Euskal Herriko eta Gipuzkoako kopak jokoan.

Euskal Herriko eta Gipuzkoako kopak jokatuko dituzte Hernaniko waterpolo taldeek. Gaur, Hernani A taldeak Gasteizen du Euskadiko kopako partidua, 13:30etan. Klasifikatoria partidu bakarrera da. Gipuzkoako Kopan, berriz, Hernaniko bi taldeei elkarren kontra jokatzea egokitu zaie. Bi partidutara jokatuko da klasifikatoria. Lehen partidua, bihar da, 13:00etan, kiroldegian.

✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

Jaione Tejedor Estatuko Txapelketan.

Gazteen Estatuko Txapelketan parte hartuko du Jaione Tejedor gimnasta hernaniarrak, gaur 18:00etan, Santanderren. Ipuruia taldearekin parte hartuko du konjuntoka, Euskadiko txapelketan lehenengo gelditu baitziren. Bestalde, lehenengo asteburuan buruz buruko Euskadiko txapelketa jokatuko zuten Leioan. Jaione 5garren gelditu zen.

✓ PELOTA -HERRI ARTEKOA

Lizartza-Hernani, gaur final laurdenetan.

Hernani final laurdenetan dago Herri Arteko txapelketan. Gaur jokatuko du Lizartzaren kontra. Hernanik pelotari guztiak ondo dauzka eta teoriaran ekiporik fuertea aterako du kantxara (Yubero eta Mendizabal sendatuta). Lizartzak talde erregularra izatea du armarik efikazena. Hernaniko taldeko arduradunek Hernaniko jendeari deitu diote animatzera joateko. Gaur, 18:00etan, Lizartzan.

✓ GALDUTAKOAK

Ping-Pong-eko 2 pala galdu dira.

Kiroldegi inguruan mahai teniseko 2 pala galdu dira, beren zorro eta guzti. Bilatzen dituenak deitu: 943 332109ra edo kiroldegiko sarreran utzi.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933

OROIMENEZKO MEZA

Jorge Mariano Litago de la Varga

Lagun batzuk meza aterako diote gaur, arratsaldeko 18:00etan, San Joan Bataiatzailea Parrokian.

Hernanin 2002ko maiatzaren 25ean.

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko: 943 331918

Urdin

Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Paco Loboren poltsa eta monederoak eskusiban.
Perla Australiar selekzioa.

Montebideo kalea 1
(EPO eta atletismo pista artean)
- HERNANI -

OIALUME BILTOKIA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
Igande honetan
SEN eta LAIOTZ
19:30etatik aurrera
OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

aukera ezazu zure lanbidea Cebanc-Cdearekin

Informatika	Administrazioa
INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRATIOA INFORMATIKA-APLIKAZIOEN GARAPENA	ADMINISTRATIOA ETA FINANTZAK A ETA D EREDUAK ADMINISTRATIO-KUDEAKETA IDAZKARITZA
Merkataritza eta Marketina	Ostalaritza eta Turismoa
NAZIOARTEKO MERKATARITZA MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETINA	JATETXE-ARLOA SUKALDARITZA (EM) BIDAI AGENTZIAK OSTATU-ARLOA JATETXE ETA TABERNAKOZERBITZUAK (EM) TURISMO-INFORMAZIO ETA MERKATARITZA
HASIERA PROFESIONALA (Bulego eta sukaldeko laguntzailea)	BERTARAINOKO AUTOBUSA www.cebanc.com
Paseo de Berio 50 • 20.018 San Sebastián • Tel.: 943 316 900 • Fax: 943 316 482	